

LIBER'92

Bilbo, 1992-VI-26

Ricardo Badiola Uriarte

Liber'92 delakoa Madrilen ospatu da: 1992-VI-23, 24, 25, 26 eta 27, Institución Ferial, Parque Juan Carlos I deritzon Erakustazokan IFEMA delakoak antolatuta. Eusko Jaurlaritzak "Euskadi" izenaz stan bakarra delakoak eraturik. Eusko Jaurlaritzak "Euskadi" izenaz stan bakarra ipini du Erakusketa honetarako, berau Nazioarteko Erakusketa delarik. Gombintea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo sailak luzatu dio Euskaltzaindiari, azken zazpi urteotan egin duen bezalaxe. Stand horretan hurrengo partaideak izan dira:

- Eusko Jaurlaritza
- Legebiltzarra
- Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Diputazioak
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Eusko Ikaskuntza
- Euskaltzaindia
- Euskal Editoreen Elkarte
- IVAP (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea)/HAEE

Euskaltzaindia ordezkatu dutenak: Rosa M.^a Arza, Nere Altuna eta Ricardo Badiola Uriarte. Inaugurazio egunetik aparte beste bi egunetan bertan izan dira standeko orduz aparte, argitaratzaile, banaketa eta salmenta alorrean (informatika, fardel egite, bidalketa etabarrez...) zenbait etxek eskainitako aukerak jasotzen, programa berriak ikustatzeko, e.a. Euskaltzaindiarentzat baliagarri eta aurrerapide gerta daitezkeenak.

Inaugurazio egunean mintzazu zirenak:

1. IFEMA delakoko zuzendaria, Pere Vicens jaunak: (7000 m² erakusketan; 40 herrik parte hartzen dute. *Liber* delakoaren 10. urteurrena, lema honekin: "un libro abierto a dos mundos". Urtero: 40.000 titulu. Azoka txandatu egiten da: Madril-Bartzelona. *Liber'92* hogeit eta hamabost milioi kostatu dela adierazi du.

2. Jarraian Manuel Coronado mintzatu da "Ley de propiedad intelectual, presencia en la Comunidad Europea (CE)". Argitaraturiko tituluak: 44.000, beraue-tatik ehuneko 75 lehen edizioak eta abar.

3. Ondoren Madrileko Komunitate Autonomoko Burua mintzatu da ongietorria emon eta egonaldi onuragarria denentzat izan dadila, adieraziz.

4. Eta azkenik Jordi Solé Tura Kultura Ministraria: (10. urteurrena: 1982-1992): Erakustazoka berria, gizartean aldaketak, fedea edo sinismena liburuarengan. 1993-IIIan Txilen izanen da 'Letras españolas' deritzona. Urtero, liburuaren inguruan 400.000.000 pezeta dabilta egiaztatu du Espainiako Estatu barruan; bertan "Comunidad federal" dagoela adieraziz.

Ministrariak, jarraian, bere eremuko helburuak aurkeztu ditu, hots:

1. Liburua, Espainiako kultura barnean, funtsezkoa da.
2. Enbarazuak baztertzen ahalegindu, irakurketa gehiago eman dadin.
3. Hiritargoaren inguruan irakurtzeko zaletasuna zuzpertz.
4. Ideien arloko askatasuna zabaldu.
5. Intelektual dimentsioa bultzatu.

Helburuetatik aparte zera adierazi du, alegia:

Administralgo desberdinen artean: Komunitate Autonomoak koordinaketa sortzen ahalegindu. Irakurketa bultzatu. Jabego intelektualaren lege berria bereaxe onartzen ahalegindu. Azkenik, *Liber'92* antolatzaileei eskerrak eman dizkie.



Ondoren *Liber'92* zabaldua dela adierazi du eta gero stand guztiak ikustatzera jo du Zuzendari eta laguntzaile batzurekin.

Euskal Komunitate Herkidegoko ordezkari erara Balendin Lasuen jauna izan da eta beronek ongi etorria eman dio "Euskadi"-ko standean. Baina Balendin jaunak eskerrak emanez aparte eskaintza egin dio, alegia, bisita dezala Euskadi, baina Picassoren *Gernika* koadruek Gernika herrira ekarriz. Ministrari jaunak barre egin eta hori bere esku ez dagoela adierazi dio.

* * *

Euskaltzaindiko ordezkariak bisitaturiko standak: Finlandia, Oxford Unibertsitatea, Asturias, Editorial Clásicos (Madrid), Nafarroako Gobernua, Colombia, Venezuela, Argentina, Larrouse, Espasa Calpe, Israel, Generalitat de Catalunya, Edebé, Junta de Andalucía, The publishers Association (Ingalaterra), ediciones 62, Piemme, Vita e Pensiero, BCNBOOKS, S.A.L., Greco and Greco editori, Fher, S.A., Timun mas.

Stand hauetatik katalogoak trukatu eta Azkue Bibliotekarako ekarri dituzte.